

MERKATARITZA GUNE IREKIAK BIZIBERRITZEKO PROGRAMA: “EKINNDENDAK”, MERKATARITZA EKINTZAIETZA ETA LOKAL KOMERTZIAL HUTSEN OKUPAZIOA SUSTATZEA.

• ATARIKOA

2023an, Donostiako Sustapenak berretsi zuen estrategia berri eta kudeaketa eredu berri baterako trantsizioaren aldeko apustua, Donostiako Berrikuntza Agentziaren zeregina betetzeari zentratutako estrategia horren helburua hiriko berrikuntza erreferente bihurtzea izanik.

Hori guztia dela eta, pertsoneri, enpresei eta proiektuei lagundu nahi die, arreta pertsonalizatua, kalitatea eta foku estrategikoa eskainita eta hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten hainbat eragile publiko eta pribaturekin elkarlanean egiteko apustu garbia eginda.

Hiriko ekonomia sarea osatzen duten sektore guztien artean, Merkataritzak, tradizio handiko sektorea izateaz gain, garrantzi nabarmena du ekonomian. Gauzak horrela, 2023ko datuen arabera, Donostiak 2.418 txikizkako saltegi ditu, hau da, 13 saltoki 1.000 biztanleko, eta Euskadiko hiru hiriburuen sailkapenaren buru da, Gipuzkoako merkataritza osoaren % 30 batzen duelako. Establezimendu multzo horrek, halaber, 8.547 lanpostu sortzen ditu, hau da, hiriko enpleguaren % 8,7.

Donostiako EJT edo ekintzaitza jardueraren tasaren hazkundearen testuinguruan, 2023an, % 7ra iritsita pandemiaren aurretiko mailetan dago, Espainiako batezbestekoa (% 6) gaindituta, baina oraindik ere urrun dago arlo horretan aurreratuenak diren ekosistemetatik eta Europar Batasuneko batezbestekotik (% 8,9).

Testuinguru horretan, Donostiako Sustapenak berrikuntza bultzatzeko apustua egiten du; horretarako, berrikuntza merkataritza bezalako tradizio handiagoko sektoreak garatzeko eredutzat hartu du eta proiektu berriei eta negozio eredu berritzaileei lagundu nahi die.

2023an, ia 790.000 euroko inbertsioari esker, merkataritza eta ostalaritza arloetako 679 establezimenduk jaso dute arreta eta 472 lanpostu berri sortu dira. Jarduera nabarmenen artean, DSS Market Plaza plataformak 312.000 euroko salmentak erregistratu ditu.

Merkataritza-enpresen eta negozioen digitalizazioak, jasangarritasunak eta berrikuntzak markatutako testuinguru sozioekonomiko honetan, Donostiako Sustapenak hiriko establezimendu komertzialei lagundu nahi die ekimen berritzaile berriak bultzatzen eta martxan jartzen, ekimen horiek sortu eta garatzeko faseetan, aukera izan dezaten beren ideiak eta proposamen komertzialak aztertu eta baliozkotzeko. Horretarako, martxan jarri du **EkinnDendak programa, honako helburu hauek dituen:**



Programa hau Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin batera finantzatzen da.
Este programa está cofinanciado por el departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco

- ✓ Merkataritza arloan, hazkunde potentziala duten proiektu ekintzaileak identifikatzea eta laguntzea.
- ✓ Aldi baterako txandakako egonaldien bidez, merkataritza proiektuak probatu eta ezartzeko aukerak sustatzea.
- ✓ Hutsik dauden lokalen okupazioa sustatzea, ekintzailetza egitasmoei laguntza eta babesa eskainiz.

EkinnDendak PROGRAMA

Programa honetan datza: merkataritzako negozio ideiak bultzatzea eta hiriko lokal komertzial hutsetan ezartzen laguntzea.

EkinnDendak programak bi etapa ditu:

- a) Merkataritza negozioei buruzko prestakuntza eta aholkularitza espezializatua eskaintzea.
- b) Negozio ideia Donostiako Sustapenak identifikatutako sinergiak sortzen dituzten ardatz komertzial aktibo eta erakargarrietan kokatutako merkataritza lokal batean probatzea eta esperimentatzea, baita jarraipena egitea ere, aholkularitza moduan, negozioa esleitutako lokalean dagoen bitartean.

Prestakuntza eta aholkularitza espezializatuaren programaren helburua tokiko ekintzaileen proiektu komertzial bereziak eta berritzaileak identifikatzea da, horiek ezartzen eta martxan jartzen laguntzeko, Donostiako Sustapenak EkinnDendak programaren baitan identifikatutako dituen lokaletan kokatzeko aukera emanez, negozio ideia horien bideragarritasuna garatu eta esperimentatzeko. Horretarako, programa bukatzean, Donostiako Sustapenak merkataritza arloko ekintzailetza proiektuen zerrenda bat osatuko du, programan lortutako helburuak eta emaitzak oinarri hartuta parte hartu dutenak bilduz.

Donostiako Sustapenak jarduera ekonomiko bat garatzeko moduko lokal komertzialak dauzka eta horiek programako parte hartzaileei laga ahal izango dizkie, baldin eta beren proiektuak fase aurreratuan badaude, proiektu horien bideragarritasuna egiaztatu bada eta, gainera, prestakuntza bukatutakoan, puntuazio handiena lortu badute eta horretarako sortutako zerrendako lehenengo lekuetan geratu badira. Salbuespen gisa, aipatutako lokaletan jartzeko baldintzak betetzen dituzten proiektuen kasuan, proiektugileek aldi berean prestakuntza jaso eta egonaldian parte hartu ahal izango dute, salmenta eta beste egitasmo batzuk txandaka esperimentatzeko.

Merkataritza lokal horietan egonaldia egiteko, berariazko baldintza arauemaile batzuk bete beharko dira; gainera, egonaldiak zerrendan sartu diren eta proba eta esperimentazio fasera igaro diren proiektuei baino ez zaizkie esleituko.

PROGRAMAREN BALDINTZAK

1.- XEDEA

Programa honen helburua merkataritza arloko ekintzailtza proiektuak identifikatzea eta martxan jartzen laguntzea da, baita beren negozio ereduaren bideragarritasuna lokal komertzial batean fisikoki probatu eta esperimenta dezaketenak identifikatzea ere.

Programaren bidez, ekintzaileei aukera eman nahi die hiriguneko merkataritza eremuetan dauden lokal komertzial hutsak okupatzeko, helburu bikoitz hau ezarrita:

- a) Tokiko ekintzailtza sustatzea eta banaketa komertzialaren merkaturatzea sartzen laguntzea.
- b) Tokiko merkataritza bultzatzea, lokal komertzialak negozio berriei betetzeko, gaur egungo merkataritza eskaintza osatzeko eta, horrela, sinergia komertzialak sortzen dituzten ardatz komertzial funtzionalak eraikitzeko.

Lehenengo fasean, Ekintzaileentzako prestakuntza programa da; formatu praktiko zein teorikoan oinarrituta dago eta elkarlaneko ingurunean garatzen da, egitasmo ekintzaileak merkaturatzen laguntzeko. Eskolak eta lanak –taldean zein banaka– konbinatzen dituen ikaskuntza prozesua eskaintzen die pertsonari, parte hartzaile bakoitzaren proiektu ekintzaileak bideratzen laguntzeko. Formakuntza prozesuak barnean hartuko ditu bi modalitate hauek: tutoretzapeko lana eta lan autogestionatua. Jarduera biak taldean zein banaka egiteko modukoak izango dira.

Lehenengo prestakuntza fase hori garatu bitartean, lokal komertzialetan aldi baterako txandakako egonaldiak egin ahal izango dira, formakuntza landutako kontzeptuak praktikan jarri ahal izateko. Txandak egiteko hautaketa eta ordena prestatzaileek erabakiko dute, proiektuaren heldutasunaren eta prestakuntza saioetan lortutako aurrerapenaren arabera.

Egonaldietan, eraturako enpresa duten, ekonomia jardueren gaineko zergan eta Gizarte Segurantzaren altan dauden eta jardueran aritzeko betebeharrak betetzen dituztenak baino ezingo dira aritu salmenta jardueran.

Bigarren fasea Donostiako Sustapenak identifikatutako lokal komertzialetan esperimentazioa eta salmenta egiteko aldi bat izango da, eta lehenengo faseko ebaluazioan puntuazio handiena lortu duten proiektuek baino ez dute parte hartuko.

2.- PROGRAMAREN IRAUPENA

Programa osoak 9 hilabeteko iraupena izango du, bi faseetan banatuta:

- Formakuntza, tutoretza eta aholkularitzaren fasea, 12 astebete (3 hilabete) iraungo duena; bukatutakoan, hiriko lokal komertzialetan kokatzeko moduko proiektuen zerrenda bat sortuko da.
- Proba, esperimentazio eta salmenten fasea, 6 hilabete iraungo duena (azken fase hori beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da, Donostiako Sustapenak komenigarritzat jotzen badu).

3.- PROGRAMAREN EDUKIA

Programa bi etapatan egituratuta egongo dago eta honako eduki hauek izango ditu:

❖ **Lehenengo etapa:** Merkataritza negozioei buruzko prestakuntza eta aholkularitza espezializatua
FORMAKUNTZA ETA TUTORETZA

Lehenengo astean parte hartzaileak eta beren proiektuak aurkeztuko dira; azken astean, aldiz, programaren lehenengo fasearen ostean lortutako emaitzak aurkeztuko dira.

Programak iraungo duen gainerako asteetan garatuko diren prestakuntza edukiak honako multzo hauetan egituratuko dira:

- **Zeharkako formakuntzako taldeko saioa, arlo pertsonal, estrategiko, ekonomiko-finantzario, administratiboari eta marketinari buruzkoa**, ekintzaileei enpresa bat kudeatzeko oinarriko kontzeptuak irakasteko. Saio bakoitzean erronka bat planteatuko da, parte hartzaileek hurrengo saioan gara dezaten, beren proiektuari aplikatuz.
- **Taldeko saioa "Galderak eta erantzunak"**. Saio bakoitzaren aurretik, parte hartzaileei tokiko merkataritzarekin eta enpresa kudeaketari buruzko zeharkako prestakuntzarekin zerikusia duten gai jakin batzuei buruzko "podcast" bat bidaliko zaie, entzun dezaten eta izan ditzaketen galderak azter ditzaten. Q&A saioak tokiko merkataritza eguneratzean eta hiriko merkataritza guneen ekonomia suspertzean aditua den kontsultari batek dinamizatuko ditu; kasuaren metodologia erabiliz, modu praktikoan aztertuko ditu planteatutako gaiak eta sor daitezkeen galdera guztiei erantzungo die.
- **Banakako tutoretzak**. Bi astean behin, parte hartzaile bakoitzak jarraipen tutoretza bat izango du, bere proiektua garatzeko laguntza jasotzeko.
- **Banakako lana**: astero, parte hartzaile bakoitzak banaka egin beharreko lana izango du, gutxienez: taldeko saioan planteatutako erronkari erantzuna ematea, proiektu propioari aplikatuta, eta "Galderak eta erantzunak" taldeko saioaren aurretik "podcastak" entzutea.

1. fasea amaitu eta gero, proiektu parte hartzaileen ebaluazioa egingo da, ordura arte lortutako emaitzak, proiektuaren bideragarritasuna eta heldutasun maila oinarri hartuta. Gutxieneko puntuazioa lortu duten proiektuek bigarren fasera pasatu ahal izango diren proiektuen zerrenda osatuko dute;

horretan, Donostiako Sustapenak jarritako lokal komertzial batean 6 hilabetez probak egin eta esperimendatzeko aukera izango dute, beren produktuak eta zerbitzuak zuzenean kontsumitzaileari/bezeroari salduz.

❖ **Bigarren fasea: JARRAIPENA, PROBAK EGITEA ETA ESPERIMENTAZIOA: Lokal komertzialean erakustea eta saltzea**

2 fasean sartu diren proiektuek 6 hilabetez produktuekin esperimendatu eta horiek merkaturatu ahal izango dituzte, probaldia amaitu ondoren lokal komertzial bat bere kabuz hartzeko.

2. fase horren multzoak honako hauek dira:

- **Probak egitea eta esperimendazioa**. 6 hilabeteko aldia izango da, probaldi moduan edo enpresaren proba pilotua egiteko balioko duena. Lokala *co-shopping* erregimenean eskainiko da, hau da, beste ekintzaile batzuekin partekatutako esparru gisa.
- **Aholkularitza eta laguntza teknikoa**. Bana-banako laguntza eta aholkularitza eskainiko da ekintzailea lokal komertzialean fisikoki egon bitartean, negozioa probatzen laguntzeko eta, horrela, kudeaketa, jarduera komertzialak eta abar zuzendu eta/edo hobetu ahal izateko.

4.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Programaren lehenengo fasean parte hartzeko, nahitaezko baldintza izango da Donostiako lokal komertzial batean kokatzeko moduko merkataritza edo zerbitzuen arloko negozio ideia bat edukitzea. Parte hartzaileak Donostiak kokatu nahi diren edo bertan kokatutako proiektuak dituzten eta egitasmoa laster martxan jarriko duten edo jarduera hasi duten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira.

Proposamenak banaka eta pertsonalki aurkeztuko dira, eta pertsona eta/edo saltoki bakoitzak gehienez ere bi proposamen egin ahal izango ditu.

Bigarren fasean parte hartzeko, hautatutako proiektuek jarduera ekonomiko bat egiteko behar diren administrazio baldintza guztiak bete beharko dituzte:

- Ekonomia jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian alta emanda egotea.
- Indarrean dagoen erantzukizun zibilaren aseguru bat edukitzea.
- Merkataritza jarduera bati lotutako betebeharrak guztiak betetzea, administratiboak eta legalak, TicketBai fakturazioa barne.

Hautatutako proiektuak aurkeztu dituzten ekintzaileek, bigarren fasea hasterakoan alta emanda ez badaude, 15 eguneko epea izango dute ebazpena jaso ondoren, Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren izena emateko. Epe hori hilabetekoa izan ahalko da forma juridikoa hautatzeko izapide luzeagoa behar duten kasuetan. Horrelakoetan, ezingo da salmentan aritu, izapide guztiak amaitu eta gainerako baldintzak betetzen ez badira. Donostiako Sustapenak aholkularitza eskainiko du beharrezko izapideak egiteko.

Bigarren fasea hasi aurretik, Donostiako Sustapenak dokumentazioa eskatuko du, adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.- HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Eskaerak norgehiagokaren bidez ebaluatu eta ebatziko dira. Aurkeztutako proiektu guztiak honako irizpide hauei jarraikiz ebaluatuko dira:

Proiektuari lotutako irizpideak. (50 puntu)

Negozio eredua, berrikuntza, digitalizazioa eta jasangarritasuna

- Ideiaren deskribapena eta jatorria, eta erantzun nahi zaion premia. 10 puntu
Ideia azaltzeko argitasuna baloratuko da, negozio idearen inguruko zehaztapen maila, baita identifikatu den eta negozio idearen bidez bete nahi den premiaren deskribapena ere.
- Negozio idearen aurretiko probak. Garapen maila. 10 puntu
Bezero/merkatuarekin egindako konparaketak baloratuko dira, baita prototipoak eta beta produktuak egotea, aldeztutako salmenta esperientzia eta fakturazioa ere.
- Berrikuntza maila. 10 puntu
Merkatuko produktu, zerbitzu, ekoizpen prozesu, marketin eta abarretan ezaugarri bereizleak edo berritzaileak sartuko dituzten proiektuak baloratuko dira.
- Tresna teknologikoen garapena eta erabilera eta digitalizazio maila. 10 puntu
- Proiektuaren jasangarritasuna (ekonomikoa eta ingurumenekoa). 10 puntu
Proiektuaren jasangarritasun maila baloratuko da, hazkunde ekonomikoaren, ingurumena babestearen eta gizarte ongizatearen arteko orekari dagokionez. Halaber, proiektuak sustatu nahi dituen garapen jasangarrirako helburuak aipatuko dira memorian (GJH 2030).

Proiektuak aurkezteko epea amaituta, Donostiako Sustapeneko lantalde teknikoak eskaera guztiak aztertuko ditu eta 30 puntu baino gehiago lortu dituzten proiektuaren egileak elkarrizketa pertsonalerako gonbidapena jasoko dute, non taldeari lotutako irizpideak ebaluatuko baitira (gehienez, 50 puntu):

Taldeari lotutako irizpideak. (50 puntu)

Profil pertsonala, konpromisoa eta prestasuna

- Programan parte hartzeko motibazioa. 10 puntu
- Proiektuaren arloari buruzko prestakuntza maila, ezagutza eta esperientzia. 10 puntu
- Taldearen koherentzia maila eta planteamenduaren eta eskuduntzen banaketa. 10 puntu
- Programan parte hartzeko eta proiektua garatzeko prest egotea, epe ertain eta luzean. 10 puntu
- Harreman kapitala edo harremanen sarea, produktu edo zerbitzuaren balio kateari dagokionez. 10 puntu

"Taldeari" dagokion puntuazio hori eta "Proiektuarena" batu egingo dira, eta puntuazio onena lortu duten proiektuak programan parte hartzeko hautatuko dira.

6.- ESKAERAK, EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu ahal izango dira Oinarriak Donostiako Sustapenaren webgunean (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/>) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, **uztailaren 31ra arte**.

Bide horiek ezin badira erabili, Donostiako Sustapenarekin harremanetan jarri behar da, eskaera izapidetzeko beste modu bat erabaki dezan.

Eranskinak osorik bete eta behar bezala orrialde guztietan sinatu beharko dira. Dagokion eskabide orriari Oinarrietan eskatzen den administrazio agiri guztiak erantsiko zaizkio.

Edozein informazio eskatu, zalantza argitu edo kontsulta egiteko, Donostiako Sustapenak pertsona guztien eskura jarriko du 943482800 telefono zenbakia, astelehenetik ostegunera 09:00etatik 17:00etara, eta ostiral eta jaiegun bezperetan 09:00etatik 14:00etara, eta fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa; idazteko, gaian "EkinnDendak 2024" jarri beharko da.

Programan parte hartzeko interesa duten enpresek edo entitateek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. faserako dokumentazioa:

- 1) Eskaeraren eranskina
- 2) Eskatzailearen NANA
- 3) Pertsona juridikoen kasuan, enpresa eskatzailearen IFK
- 4) Proiektuaren memoria, pertsona edo talde sustatzaileari eta proiektuari buruzko informazioa jasotzen duena, proiektuen ebaluazioan aplikatuko diren eta parte hartzeko Oinarri hauetan xehetasunez azaltzen diren balorazio irizpideei erantzuteko.

Lehenengo fasea gainditu eta bigarren fasera sartu diren proiektuen kasuan, lokal komertzialak okupatu aurretik, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

2. faserako dokumentazioa:

- 1) Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan egindako alta eta baja guztien zerrenda.
- 2) Ekintzailearen lan bizitza.
- 3) Erantzukizun zibileko aseguruua ordaindu izanaren agiriaren kopia.
- 4) Sinatutako lagatze kontratua.

7.- ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Aurkeztutako eskaerak erabat beteta ez badaude, pertsona edo entitate interesdunari errekerimendua egingo zaio jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun balioduneko epean eskaera osatu edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan, hori egin ezean eskaera gaitzetsi egingo dela eta dagokion ebazpena emango dela adierazita.

8.- LEHENENGO FASEA EBAZTEA ETA BIGARREN FASERAKO PROIEKTUAK HAUTATZEA

Programan parte hartzeko eskaerak Oinarri hauetan adierazitako parametroen arabera ebatziko dira. Kasu guztietan, eskaera onartu edo ukatzea Donostiako Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

1. fasea amaituta, proiektu parte hartzaileen ebaluazioa egingo da, ordura arte lortutako emaitzak eta proiektuaren heldutasun maila oinarri hartuta. Gutxieneko puntuazioa lortu duten proiektuek bigarren fasera pasatu ahal izango diren proiektuen zerrenda osatuko dute; horretan, Donostiako Sustapenak jarritako lokal komertzial batean probak egin eta esperimintatzeko aukera izango dute, beren produktuak eta zerbitzuak zuzenean kontsumitzaileari/bezeroari salduz. Donostiako Sustapenak lehenengo fasean eta hori amaitu aurretik proiektuetako batek ezarritako baldintza guztiak bete dituela eta bigarren faserako behar duen garapen maila lortu duela ikusten badu, proiektu hori aurkeztu duten ekintzaileak programaren bigarren fasera igaro ahal izango dira, prestakuntza eta probak batera egiteko.

Proiektuen hautaketaren emaitzak **irailaren 4a baino lehen jakinaraziko dira eta programaren lehenengo faseko prestakuntza irailean hasiko da.**

Bigarren faseak 6 hilabete iraungo du eta beste 3 hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta hala erabakitzen badu Donostiako Sustapenak, lokaletan une horretan dauden proiektuetarako merkatuko aukeraren irizpideei jarraikiz.

Ebaluazio irizpideak honako hauek izango dira:

- Negozioaren bideragarritasuna, programako tutoreekin egindako enpresa planean egiaztatua. (30 puntu; gutxienez 25 puntu lortu behar dira)
- Komunikazio- eta sustapen-estrategiak, produktuen karpeta, prezioen politika, xede taldea, *branding* eta abar, hori guztia sustapenari lotutako gaiak jasotzen dituen marketin plan batean (30 puntu; gutxienez 25 puntu lortu behar dira).
- II. faseko garapenean aurrez aurre parte hartzeko prestasun maila (15 puntu; gutxienez 10 puntu lortu behar dira).
- Lehenengo fasea zenbateraino aprobeztatu den eta lortutako aurrerapena (15 puntu).
- Hiriarentzat estrategikoak diren beste sektore batzuekin bat etortzea, negozioaren berrikuntza maila, negozio aukeraren potentziala eta abar (10 puntu).

Gutxienez 75 puntu lortu duten proiektuek bigarren fasera pasatu ahal izango diren proiektuen zerrenda osatuko dute; horretan, Donostiako Sustapenak jarritako lokal komertzial batean 6 hilabetez probak egin eta esperimintatzeko aukera izango dute, beren produktuak eta zerbitzuak zuzenean kontsumitzaileari/bezeroari salduz.

Proiektuak Donostiako Sustapenak identifikatutako lokaletan instalatuko dira, proiektuen zerrendaren ordenari jarraikiz eta lokal horietan libre dagoen lekua araberak. Enpresa batek egonaldia bukatu eta lekua uzten duenean, zerrendan dagoen hurrengo proiektuak hartu ahal izango du leku hori.

Programaren bigarren fasean sartu diren parte hartzaileek Oinarri hauen 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bigarren faseari dagokionez.

Oro har, parte hartzaileetako batek lokal batean egonaldia egiteko aukera jasota uko egiten badiu, automatikoki kenduko da proiektuen zerrendatik. Salbuespen gisa, Donostiako Sustapenak kasu bereziak aztertu ahal izango ditu, uko egitea justifikatuta dagoen ikusteko eta egonaldia beste une batean egiteko eskubidea mantentzeko.

9.- PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Programan parte hartzen duten pertsonak honako berariazko betebeharrak bete beharko dituzte:

1. Programako betekizun eta baldintzak betetzea, prestakuntza jardunaldi guztietan parte hartuz eta hasieratik ezarritako lan plana betez.
2. Prestakuntza faseko saioen portzentaje handian egotea (gutxienez % 80), lokal komertzialean esperimintazioa eta salmenta egiteko faserako proiektuen hautaketan parte hartu ahal izateko.
3. Bigarren faserako hautatutako proiektuen kasuan, jarduera ekonomiko bat egiteari berez dagozkion arau guztiak betetzea (ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea, Gizarte Segurantzaren eta abar).

4. Lokala mantentzeko ezarriko diren baldintzak eta bizikidetza arauak (lokala erabiltzen duten gainerako ekintzaileekin) betetzea.
5. Programan ezarritako ordutegi komertziala betetzea.
6. Lokal komertzialean egiten den egonaldia lotutako edozein arau betetzea, garapen eta funtzionamenduari dagokienez, probak egiteko eta esperimendatzeko fasean.
7. Norberaren merkataritza jardunerako nahitaez bete behar diren arau guztiak betetzea (produktuak eta zerbitzuak).
8. Proiektua hautatzeko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatzen bada, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
9. Programaren garapenari dagokionez, Donostiako Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
10. Donostiako Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
11. Donostiako Sustapenari baimena ematea bere enpresen direktorio digitaletan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, ekintzaileak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Ondorio horretarako, ekintzaileak elementu horiek adierazitako helburuekin bakarrik erabiltzeko eta eskusibotasunik gabe ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostiako Sustapenari eta Sustapenak era baketsuan erabiltzea bermatuko du. Hortaz, baldintzak arauemaile hauetan esanbidez ezarritakoa ez den beste edozein erabilera espresuki baimendu beharko da.
12. EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, seinaleztapena eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.
Ekintzaileek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko, (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira. (<https://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>)
13. Azpiegitura, material, euskarri eta espazio guztietan Donostiako Udalaren, Donostiako Sustapenaren eta Sustapenak aukeratutako erakundeen logoak jartzea.

10.- PROGRAMAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Ekintzaileak Oinarri hauetan ezarritako baldintzetako edozein betetzen ez badu, galdu egingo du programan parte hartzeko eskubidea, dagozkion betebeharrekin.

11.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Jarduera honen esparruan bildutako eta sortutako datuak Donostiako Sustapenak enpresa proiektuak babestu eta bultzatzeko eta enpresa eta/edo autonomoei laguntzeko zerbitzuak emateko kudeatuko ditu. Horretarako, eskatzen eta sortzen diren datu pertsonalak beharrezkoak dira zerbitzua emateko, bestela ezinezkoa baita zerbitzua ematea.

Emandako datu pertsonaletan egon daitekeen edozein aldaketa datuen titularrak Donostiako Sustapenari jakinarazi beharko dio, kasu guztietan titularra izango baita emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren erantzule. Beste pertsona batzuen datuak ematen badira, eskatzaileak datu horiek komunikatzeko baimena eduki beharko du, titularrei eskatutakoa. Datu horien tratamenduaren arduraduna Donostiako Udala da, eta Donostiako Sustapena, zerbitzuaren kudeatzailea denez, tratamenduaren eragilea da.

Donostiako Sustapenak kudeatzen dituen datu pertsonalak tratatzeko gaitzen duen titulu juridikoa Datuak babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluan aipatzen den interes publikoa da.

Datu pertsonalak beste batzuei lagako zaizkie, baldin eta beharrezkoa bada lege betebeharrak betetzeko edo kanpoko hornitzaileen zerbitzuari euskarria emateko.

Datuak zerbitzuaren iraunaldian gordeko dira, ezarritako kontratua betez, baita gero ere, beste bost urtez, zerga araudia betetzeko. Datu pertsonalen tratamenduari lotutako eskubideak erabiltzeko, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzura jo daiteke (Ijentea kalea 1, 20003).

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzailea, dagokion eskaera aurkeztearekin batera, jakinaren gainean geratu dela eta jaso duela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera datu pertsonalen tratamenduaren berri.

12.- AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko dira (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/>) eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko dira indarrean. Interesdunek eskaera aurkezten badute, Oinarri hauek osorik onartzen dituztela esan nahi du.

Hautatutako pertsona/enpresa aurkeztutako dokumentazio osoaren egiazkotasunaren, baita jardueraren aurretiko eta ondorengo jarduketan ondorioz sor daitezkeen kalte pertsonal eta material

guztien ere erantzule bakarra izango da, eta Donostiako Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostia, sinaduraren egunean.

Iñigo Olaizola Arcaute
Zuzendari kudeatzailea